

Lehen CodeDojo Test Driven Development-a MUko Goi Eskola Politeknikoan

2013/05/29

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoak bere lehen Coding Dojo-a antolatu zuen. Bertan, Bunt Planeteko Ruben Egiluzen ardurapean eta TDD metodologia erabilia, programazio erronka bati aurre egin behar izan zioten bertara hurbildutako programatzaileek.

Bikoteka burutu behar den jarduera hau, KATA deritzona, 30 minutuko hiru iterazio prozesuz osatuta dago, eta iterazio bakoitzean ziklo berdina errepikatzen da. Lehendabizi, kideetako batek proba kodifikatu behar du, eta ondoren, beste kideak aurreko testa gaindituko duen programa idatzi behar du. Proba arrakastaz gainditu ondoren, zikloaren azken fasera iritsiko dira, bifaktORIZAZIO fasera. Fase horretan kodigoa berriro berregituratu behar da, barne egitura aldatuz baina kanpoko portaera aldatu gabe.

Zikloa amaitu ondoren, kide bakoitzak beste kidearen rola hartuko du, eta betebeharrak berri bati egin beharko diote aurre. Iterazioa amaitu ondoren, parte hartzaile guztiak elkartuko dira euren iritzia trukatzeko. Bikotez aldatu eta beste iterazio bat egiteari ekingo diote.



Iterazioa komentatzeko bileratxoa